



Ondorioak

- Mitifikazio eta irudimen gehiegi (ez gara bizi erabat integratutako ekonomia bakarrean: merkantzia, kapital, lanekuaren prezioak, edo zergak eta arautegiak ez dira berdinak ezta berdin antzekoak ere, eta hiru merkatu nagusi horietan mugikortasuna ez da erabatekoa eta fluxuen hazkundera ez da homogeneoa ezta orekatua)
- Globalizazioaz baino erregionalizazioaz (eskualdekatzeaz) hitz egin beharko genuke (bateragarriak?)
- Mundu mailara harreman ekonomikoak zabaltzea berez ez da txarra; kaltegarria dena da orain arte aukeratutako bidea (ustezko merkatuzaletasunean eta neoliberalismo faltsu batean oinarrituta)

- 
- Mundu osoa erreferentzia gisa hartzeak oso alde onak baditu ere, harreman ekonomikoak berreraikitze aukera eskaintzen duelako irizpide bidezkoago eta zuzenagoetan oinarrituta; (herritartasun unibertsala munduko biztanle guztien eskubideen onarpena eta betekizuna) eskubideak ematen dizkiguna ezin da izan leku batean edo bestean jaio izana
 - Globalizazioak gertakizunaren izaera eduki dezake (errealitatea interpretatzeko tresna gisa uler daiteke), baina errezeta edo gomendiotzat ere har daiteke “pentsakera bakarra” izendatua izan den sasineoliberalismoa egonik honen atzean.
 - Harreman ekonomikoak nazioartera jotzen badute, erabaki erakundeak ere sortu beharko dira maila horretan, baina demokrazian eta justizia sozialean oinarrituta (botere konpentsatzaileen indarra ere oso baliagarria izan daiteke, besteak beste gizarte mugimenduak aipatu behar direlarik).



EGUNGO GLOBALIZAZIO EREDUAREN ERRONKA NAGUSIAK

Globalizazioa beste irizpide, norabide eta printzipioetan oinarrituta:

- Baztertuen aldeko arauketa/desarauketa nazioarte mailan eta herrialde bakoitzaren barruan
- Globalizazioaren kostu eta etekinen birbanaketa (elkartasuna eta justizia globalizatu)
- Gizakien alde vs. enpresen alde globalizatu
- Eskubideak vs. merkatuak globalizatu (herritartasun unibertsala)
- Giza-garapena globalizatu